

Euskadiko gazteei buruzko datu estatistikoen analisia 2023ko urtea




Balioak eta jarrerak

Valores y actitudes

Euskadin bizi diren atzerrian jaiotako gazteen erdiak baino gehixeagok diote noizbait diskriminatuta sentitu direla Euskadin beren jaioterriatik (% 53,3)

ATZERRIAN JAIOTAKO EUSKADIN BIZI DIREN 15 ETARA BITARTEKO GAZTEAK

Zure jaioterriatik diskriminatuta sentitu zara inoiz Euskadin?



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2023

Datu hori Gazteen Euskal Behatokiak 2023ko azaroaren 6tik abenduaren 1era arte online egindako inkesta batetik dator. Inkesta horretan 15 eta 29 urte bitarteko 1.701 gaztek hartu zuten parte. Gazte horien artean 167 atzerrian jaiotakoak dira, eta haiek eman digute Euskadin izan duten diskriminazioari buruzko bizipena.

2030 Agendaren lehentasunen euskal programak, 2021-2024 aldirako jardueraren planean, migrazioekin lotutako konpromiso batzuk ezartzen ditu, hala nola, "migrazio-egitatearen aurreko harrera-, integrazio- eta erantzunkidetasun-kultura zibikoa sustatzea eta hedatzea", "migratzaileak hartzeko estrategia global bat finkatzea", "asilo-politikaren euskal eredu bat definitu eta sustatzea" edota "zaugarritasun-egoeran dauden migratzaileentzako babesa, estaldura eta laguntza".



2030 Agendaren

lehentasunen
euskal programa

2021-2024 Jardueraren plana

Konpromiso horiek, era berean, 1. (pobreziaren amaiera) eta 10. (desberdintasunak murriztea) Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lotuta daude. Eta, zehazki, Nazio Batuen Erakundeak ezarritako 10.2 xedearen helburua da "hemendik 2030era bitartean pertsona guztien gizarteratze soziala, ekonomikoa eta politikoa sustatzea, haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza kontuan hartu gabe".



GARAPEN  **HELBURUAK**
IRAUNKORRERAKO

Abenduak 5, Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna

Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna urte bakoitzeko abenduaren 5ean ospatzen da, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren aginduz. Boluntarioek eta erakundeek beren lorpenak ospatzeko, beren balioak partekatzeko eta beren lana beren komunitateen, gobernuz kanpoko erakundeen (GKE), Nazio Batuen erakundeen, gobernu-agintarien eta sektore pribatuaren artean sustatzeko balio du.

Aurtengo leloak, "Denok egingo bagenu...", mundu mailako erronkei aurre egiteko (pobrezia, desberdintasunak, gatazkak, krisi klimatikoa eta elikagaien segurtasunik eza, besteak beste) ekintza kolektiboaren, lankidetzaren eta pertsonen gidatutako konponbideen garrantzia azpimarratzen du.

Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak boluntariotzako **bi programa** ditu: Euskadiko Gazteak Lankidetzan eta Auzolandegiak.



Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa Euskal Autonomia Erkidegoko 22 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, udako hiru hilabeteetan Hegoaldeko herrialdeetan boluntariotza lana egiteko, eta honako helburu hauek ditu:

- Euskadiko gazteen artean elkartasunaren balioa sustatzea.
- Euskadiko gazteak garapenerako lankidetzaren ekintzetan sentsibilizatzea.
- Lankidetzaren kontzeptua gazteengana hurbiltzea, ekintza horien garapena "in situ" ezagutzeko aukera eskainiz.
- Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) Hegoaldeko herrialdeetan egiten duten lana ezagutaraztea.

Oso harrera ona izan duen programa da. Hasieratik, orain dela 30 urte hona 2.463 gaztek aukera izan dute beste errealitate batzuk ezagutzeko eta mundu osoko lankidetzaren proiektuetan parte hartzeko. 2023ko edizioan 64 gaztek parte hartu dute (54 emakume eta 10 gizon). Gazte horiek 9 herrialdeetan (Mexiko, Honduras, El Salvador, Guatemala, Kolonbia, Ekuador, Peru, Ginea eta Uganda) egin diren hainbat proiektutan parte hartu dute.



Auzolandegiak programa adin desberdinetako gazteei zuzenduta dago (oro har, 14-17 urte bitarteko gazteentzat, adingabeen kasuan, eta 18-26 urte bitartekoentzat, helduen kasuan). Jarduera horietan, jatorri desberdinetako gazteak biltzen dira eta, borondatez eta eskuzabaltasunez, bi astetik lau astera, gizarte-proiektioko lan bat egiteko konpromisoa hartzen dute, jarduera osagarriak egiten dituzten bitartean. Ezaugarri hauek ditu programak:

- Ohiko aisialditik ihes egiten duten jarduera sortzaile eta kooperatiboak egiten dira.
- Landa-eremuak ezagutzeko aukera eskaintzen dizu, ohiko ibilbideetatik kanpo.
- Hainbat jatorritako pertsonen arteko topagunea da, haien kultura eta ohiturak trukatzeko.
- Taldean bizitzeko esperientzia da, bakoitzaren indibidualismotik irtetea, taldean bizitzeak dituen balioak esperimendatuz.

2023an, 371 gaztek parte hartu dute (233 emakume eta 138 gizon). Kopuru horretan kontuan hartzen du bai Euskadin kokatutako 10 auzolandegietan parte hartu dutenak, bai beste autonomia-erkidegoetan edo atzerrian izandako auzolandegietan parte hartu duten Euskadiko gazteak.



Azaroak 25, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna


Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko emakume gazteek bizi duten egoerari buruzko adierazle batzuk aztertu ditu.

Bost emakume gaztetik batek indarkeria motaren bat jasan izan du bere bikote-harremanetan

Euskadiko ia emakume eta gizon gazte guztiek oso larritzat jotzen dituzte indarkeria-jokabide agerikoenak. Hala ere, oraindik tratatu txar mota asko ez dituzte larritasun-maila berarekin ikusten batzuek eta besteek.

Harreman batean onartezina denari buruzko kontzientziazioa ez da maila berera iritsi emakume eta gizon gazteen artean. "Mespretxuak egitea" eta "bikotearen itxura, arropa, adiskideak kontrolatzea" indarkeria motek 17 puntu baino gehiagoko aldea erakusten dute jokabide oso larritzat hartzen dituzten emakume gazteen ehunekoaren eta gizon gazteen ehunekoaren artean. "Iraintzea" ere 15,2 puntuko dekalajea erakusten du, eta "sare sozialetan kontrolatzea" eta "gauzak erabakitzen ez uztea" indarkeria motek ere 13 puntu baino gehiagoko aldea.

Bikote-harremanetan gerta daitezkeen indarkeria mota desberdinak oso larritzat jotzen dituzten 15 eta 29 urte bitarteko emakume eta gizonen portzentajeak. 2022 (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Emakume gazteen % 20,2k pairatu du indarkeria-mota horietakoren bat bikote-harremanetan.

Adinak gora egin ahala, inoiz bikotekiderik izan ez dutenen ehunekoak behera egiten du, eta, esperientziarekin batera, indarkeria-motaren bat jasan duten emakumeen ehunekoak ere gora egiten du eta 25-29 urtekoen taldean % 31ra iristen da.

Bikote-harremanetan gerta daitekeen indarkeria motaren bat bizi izan duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen portzentajea, adin-taldean arabera. 2022 (%)

	Guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai, bizi izan du	20,2	10,5	19,7	31,0
Ez, ez du inoiz bizi izan	55,0	39,3	64,2	62,4
Ez du inoiz bikotekiderik izan	22,5	47,0	14,3	5,0
Ez du erantzun nahi	2,3	3,2	1,8	1,7

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Hamar emakume gaztetik lauk jazarpena sentitu dute noizbait sare sozialetan

15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 4,1ek behin eta berriz jasan ditu jazarpen-egoerak sare sozialetan, eta % 35,4k noizbait sentitu du bere burua jazarrita. Iruzkina desatseginak edo irainak dituzten mezuak etengabe bidaltzearen bidezko jazarpena Euskadiko emakume gazteen % 39,5ek momenturen batean jasan duen errealitatea da.

Egoera horiek gora egin dute azken urteetan: 2018an, noizbait jazarrita sentitu zirela zioten emakume gazteen ehunekoa % 25,2 zen, eta 2020an % 27,6.

20 eta 24 urte bitarteko emakumeak dira errealitate horrek gehien eragiten dienak, % 48,8ra iristen baita sare sozialetan noizbait jazarrita sentitu diren adin horretako emakumeen ehunekoa. Ondoren, 25 eta 29 urte bitartekoak daude, % 38rekin; hala ere, askotan jazarrita sentitu direnen ehunekoari erreparatuz gero, 15 eta 19 urte bitartekoaren ehunekoa (% 5,2) batez bestekoa baino handiagoa da.

Sare sozialetan jazarrita sentitu diren 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen portzentajea, adin taldeen arabera. 2022 (%)

	Guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	4,1	5,2	4,3	2,7
Noizbait	35,4	26,8	44,5	35,3
Inoiz ez	59,9	66,9	50,5	62
Ez du erantzun nahi	0,6	1,1	0,6	0,1

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

15 eta 29 urte bitarteko hamar emakumetik zazpik beldurra sentitzen dute gauez beren herritik edo auzotik bakarrik dabiltzanean

Emakume gazteen % 72,1 beldur dira gauez beren herritik edo auzotik bakarrik ibiltzen direnean. Gazteenek, 15 eta 19 urte bitartekoek, dute ehuneko handiena, horien % 76,8k adierazi baitute beldurra sentitzen dutela egoera horietan.

Gainera, kalean gauez bakarrik ibiltzeko beldurra nabarmen handitu da aurreko neurketekin alderatuta. 2016 eta 2022 artean bikoiztu egin da, % 34,2tik % 72,1era.

Gauez beren herritik edo auzotik bakarrik ibiltzen direnean beldurra sentitzen duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen portzentajea, adin-taldeen arabera. 2022 (%)

	Guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	72,1	76,8	72,8	66,3
Ez	26,7	21,9	26,3	32,1
Ez du erantzun nahi	1,2	1,3	0,8	1,6


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2022an, 15 eta 29 urte bitarteko 1.000 emakumetik 9,7k jarri zuten genero-indarkeriagatiko salaketaren bat. Hamar salaketatik zazpi bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik izan ziren

Euskadin, emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra, 2022an, 1.000 emakumeko 9,7koa da, 15-29 urteko adin-taldean. Tasa horrek adierazten du zenbat emakumek jarri duten salaketa bat (edo gehiago) genero-indarkeriagatik, adin-talde bereko 1.000 emakumeko.

Emakume gazteei dagozkien tasak 30 urteko edo gehiagoko emakumeenak baino altuagoak dira serie osoan zehar.


Genero-indarkeriagatik salaketaren bat jarri duten emakumeen tasaren bilakaera, adin-talde handien arabera (adin-talde bereko 1.000 emakumeko tasa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emakundek emandako datuak oinarri hartuta

Datu absolututan, 2022an, 15 eta 29 urte bitarteko 1.468 emakumek jarri zuten genero indarkeriagatik salaketaren bat; 30 urte eta gehiagoko emakumeen artean, berriz 3.402k.

Genero-indarkeriako gertakariengatik salaketa jarri duten emakumeen kopuruaren bilakaera, adin-talde handien arabera (absolutuak)




Iturria: Emakunde

Bost urteko taldeen arabera banaketak erakusten ditu 2022an genero-indarkeriagatiko salaketaren bat jarri zuten 1.468 emakume gazte horietatik 400k 15-19 urte zituztela, 519k 20-24 urte zituztela eta 540k 25-29 urte zituztela.

Emakume gazteek salatutako genero-indarkeria gehiena, % 69,5, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria zen (1.020 emakume); % 12,4k (182 emakume) familia barruan jasandako indarkeria salatu zuten eta beste % 18,1ek (266) sexu-askatasunaren aurkako delituen bat.

15 eta 29 urte bitarteko emakumeek salatu duten genero-indarkeria motaren banaketa.
2022 (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emakunde emandako datuak oinarri hartuta

Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 5. helburua Genero-berdintasuna da. Helburu horren barruan, 5.2 xedeak zera bilatzen du: emakume eta neska guztien aurkako indarkeria-mota guztiak ezabatzea eremu publikoan zein pribatuan, sexu-salerosketa eta -esplotazioa barne.




Ekainak 5, Ingurumenaren Munduko Eguna

2023an egun honen leloa plastikoek sortzen duten kutsadurarekin lotuta dago

Plastikoen erabilera eta plastikoen ekosistemetan duten eragina murriztea guztion erantzukizuna da, administrazio publikoena, enpresena eta herritarrena.

2021ean, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 70ak esaten zuen normalean bere poltsa eramaten zuela erosketak egitera zihoanean. Bestetik, % 36,2k adierazi zuen sarritan gutxi paketatutako produktuak erosten saiatzen zela. Bi neurri horiek plastikoen kontsumoa murrizten laguntzen dute.


Erosketa ohitura horiek sarritan jarraitzen dituzten gazteen ehunekoak gora egin du 2012tik 2021era.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Plastikoen kontsumoa murriztea dakarten jokabide horiek gehiago egiten dituzten emakumeek, gizonek baino. Adinean gora egin ahala ere ohikoagoak izaten dira jokabide hauek.

Plastikoen kontsumoa murriztea dakarten jokabide batzuk sarritan egiten dituztela dioten Euskadiko 15-29 urteko gazteak, 2021ean, sexuaren eta adin-taldean arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Bestetik, 2022an, gazteei ea prest zeuden plastikoen kontsumoa (poltsak, gainpaketatutako produktuak, etab.) murrizteko galdetu zitzairen. Gazteen hirutik bi oso prest agertu ziren beren plastikoen kontsumoa murrizteko (% 67,6) eta beste % 27,0 nahiko prest azaldu zen.

“Oso prest” zeudela ziotenen ehunekoei erreparatuz gero, ikusten dugu emakumeak gizonak baino prestuago daudela beren plastikoen kontsumoa murrizteko. 20 eta 29 urte bitarteko gazteak ere, 20 urtetik beherakoak baino prestuago daude horretarako.

2022an plastiko gutxiago kontsumitzeko oso prest azaldu diren Euskadiko 15-29 urteko gazteak, sexuaren eta adin-taldean arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022)


Plastikoen kontsumoa murriztea Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren hainbat helbururekin lotuta dago: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak (12), Klimaren aldeko ekintza (13), Itsaspeko bizitza (14) eta Lehorreko ekosistemetak bizitza (15).

Zehazki, 12. helburuaren barruan, 12.5 xedeak adierazten du hemendik 2030era hondakinen sorrera nabarmen murriztu behar dela prebentzio-, murrizketa-, birziklatze- eta berrerabiltze-jardueren bidez.



Maiatzak 21, Elkarrizketarako eta Garapenerako Kultur Aniztasunaren Munduko Eguna

Euskadin, 2022ko urtarrilaren 1ean, atzerrian jaiotako adin guztietako 255.597 pertsona bizi ziren. Euskadin bizi diren atzerriarren kopurua nabarmen igo da azken hogeitaz urteetan eta 2001ean 46.540 pertsona izatetik 2022an 255.597 izatera pasatu da.




Beste herrialdeetatik etorritako 255.597 pertsona horietatik, 44.485 gazteak dira, hau da, 15 eta 29 urte bitartekoak dira.

Jarraian, **Euskadiko gazteek atzerriko immigrazioari buruz duten pertzepzioa** azalduko dugu, datu batzuen bidez. Datu horiek Gazteen Euskal Behatokiak 2022ko urrian 15 eta 29 urte bitarteko 3.000 gazte baino gehiagoko lagin bati egin zion inkesta online batetik datoz.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 17,2k uste du, Euskadin, beste herrialdeetako jende gehiegi dagoela. Beste % 62,7ren iritziz, dezente daude, baina ez gehiegi. % 9,8ren ustez, aldiz, atzerriko jende gutxi dago Euskadin. Eta gainerako % 10,1ek ez daki edota ez du erantzun.


Euskadin atzerriar gehiegi daudela uste duten gazteen ehunekoak gorabeherak izan ditu azken hogeitaz urteotan, eta pertzepzio horretan eragin handiagoa izan du uneko egoerak atzerriarren benetako kopuruaren bilakaerak baino. Beste herrialdeetako pertsona gehiegi zeudela uste zutenen zifrarik altuena (% 44,6) 2012an jaso zen eta momentu hartan krisi ekonomiko larria zegoen eta langabezia-tasa altua zen. Zifrarik baxuena, aldiz, 2020an jaso zen (% 9,1) eta orduan Covid19ak sortutako pandemiaren hilabete latzenetan geunden eta mugitzeko murrizketak zeuden.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Atzerriko immigrazioari dagokionez, zein izan beharko litzatekeen politikarik egokiena galdetu zaie gazteei eta haien erdiek (% 50,3) esan dute etorkinen sarrera ahalik eta gehien erraztu beharko litzatekeela. Beste % 35,3ren iritziz, lan-kontratua dutenei bakarrik erraztu beharko litzatekeela sarrera. % 1,5ek, aldiz, etorkinen sarrera debekatu beharko litzatekeela uste dute. Eta gainerako % 12,8k ez dauka iritzirik edo ez du erantzun nahi.

Etorkinen sarrera ahalik eta gehien erraztu beharko litzatekeela uste duten gazteen ehunekoa jaitsi da 2020tik 2022ra, baina, hala ere, aukerarik zabalduena izaten jarraitzen du.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan esaten dute atzerriko etorkinen sarrera ahalik eta gehien erraztu beharko litzatekeela (% 57,4 eta % 43,7, hurrenez hurren).

Bestetik, inoiz beren jatorriagatik diskriminatuta sentitu diren gertakariren bat bizi izan duten galdetu zaie gazteei. Atzerrian jaiotako hamar gaztetik seik adierazi dute bizi izan dutela jatorriagatik diskriminazio hori (% 61,3).

Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 10. helburua "Desberdintasunak murriztea" da. Eta helburu horren barruan 2. eta 7. helmugek haxe adierazten dute:

- 10.2. helmuga: Hemendik 2030era, pertsona guztien gizarteratze sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea eta sustatzea, haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza kontuan hartu gabe.
- 10.7. helmuga: Pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatuak, seguruak, erregularrak eta arduratsuak erraztea, baita planifikatutako eta ondo kudeatutako migrazio-politikak aplikatuz ere.

Denon artean lan egin behar dugu helburu eta helmuga horiek lortzeko.




Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 13,8 diskriminatuta sentitu da noizbait bere orientazio sexualagatik edo bere identitate sexualagatik

Maiatzaren 17an Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen da urtero, 2004tik hona. Hori dela eta, Gazteen Euskal Behatokiak identitate edo orientazio sexualagatik bizi izandako diskriminazioari buruzko datu batzuk aurkeztuko ditu.

2022an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 13,8k adierazi zuen bizi izan zuela bere orientazio sexualagatik edo bere identitate sexualagatik diskriminatuta sentitu zen gertakariren bat.

Beren identitate edo orientazio sexuala dela eta, diskriminatuta sentitu diren gertakariren bat bizi izan duten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak (%)



Ehuneko hori handixeagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 15,2 eta % 12,2, hurrenez hurren).

Bestetik, beren identitate edo orientazio sexualagatik diskriminatuta sentitu direnen artean, gehienek beren itxura fisikoagatik ere diskriminatuta sentitu direla adierazi dute (% 64,2), itxura fisikoagatik noizbait diskriminatuta sentitu diren gazte guztien batez bestekoa (% 40,0) baino hogeita puntu gehiago.

Guztira, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 8,8k lehen pertsonan bizi izan du identitate edo orientazio sexualagatik eta itxura fisikoagatik diskriminazio bikoitza.


“Genero-berdintasuna” **Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 5.**
helburua da.



Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 60k uste du helduen eta gazteen artean badaudela eskubide eta aukera ezberdintasunak

2022an, Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri bati galdetu zitzaion ea hautematen zuen kolektibo batzuen artean eskubide- eta aukera-ezberdintasunik zegoen ala ez.

Gazteen iritziz, ondasunean eta jatorrian oinarritutako ezberdintasunak dira nabarmenenak. Gazteek uste dute Euskadin aberatsen eta pobreen arteko eskubide- eta aukera-ezberdintasunak, bai eta bertakoen eta atzerriko immigranteen artekoak ere, emakume eta gizonen artekoak edo adin-taldearen artekoak baino handiagoak direla.




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteen argazkiak 25)

Gazteen eta helduen arteko eskubide- eta aukera-ezberdintasunei erreparatuz gero, ikusten dugu, guztira, gazteen % 60k ikusten dituela horrelako ezberdintasunak Euskadin; izan ere % 16k ezberdintasun horiek oso handiak direla dio eta beste % 44k nahiko handiak direla.

Batera hartzen baditugu belaunaldien arteko ezberdintasun horiek oso handiak edo nahiko handiak direla dioten gazteak, ikusten dugu emakumeak eta 25 urtetik beherakoak direla ezberdintasun horiek neurri handienez hautematen dituztenak.


Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteek hautematen dituzten pertsona helduen eta gazteen arteko eskubide- eta aukera-ezberdintasunak, sexuaren eta adinaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteen argazkiak 25)

Hala ere, gazteak ez dira helduen eta gazteen arteko ezberdintasunak gehien hautematen dituztenak; 30 eta 64 urte bitarteko pertsonen artean ezberdintasun mota horiek oso handiak edo nahiko handiak direla dioten ehunekoa gazteen artean jasotakoa baino handixeagoa da.

Pertsona helduen eta gazteen arteko eskubide- eta aukera-ezberdintasunak hautematea, adin-talde handien arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta (77. Euskal Soziometroa)

Desberdintasunak murriztea Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 10. helburua da.



Gizon gazteak emakume gazteak baino gusturago daude lanean gora egiteko aukerei dagokienez

Martxoaren 8an **Emakumeen Nazioarteko Eguna** ospatzen da. Aurten, 2023an, **"Emakumeak gora!"** da leloa, gure gizartean erabaki- eta lidergo-postuetan emakume gehiago egotea beharrezkoa dela aldarrikatzeko, eta, horretarako, emakumeek beren ahalmen profesional guztia baldintza berdinetan garatu ahal izateko aukerak sortu behar direla aldarrikatzeko.


Horregatik, Gazteen Euskal Behatokiak emakume gazteek lanean gora egiteko dituzten aukerei buruzko datu batzuk aurkezten ditu. Datuak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak aldian-aldian egiten dituen Lan Baldintzei buruzko Inkestetatik datoz, eta eskuragarri daude Eustat Euskal Estatistika Erakundearen webgunean.

2020an, azken inkestaren urtean, Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko edo kooperatibetako emakumeen % 13,0 oso pozik zeuden lanean gora egiteko aukerekin. Adin eta lan-egoera bereko gizonen artean, % 21,6k zioten oso pozik zeudela lanpostuz igotzeko aukerekin.

Sustapen-aukerekiko gogobetetze-aldea ez da inoiz 2020an bezain handia izan gizon eta emakume gazteen artean (ehuneko 8,6 puntu).

Emakumeek, oraindik ere, erabakiak hartzeko posizioetara, baldintza berdinetan, igotzeko oztopoak dituzte. Oztopo batzuetan ikusezinak edo hautematen zailak dira, hala nola kristalezko sabaiak, genero-rolak eta -estereotipoak, eta abar.

Lanean gora egiteko aukerekin oso pozik dauden 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko eta antzeko emakumeen eta gizonen ehunekoen bilakaera




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Lan eta Enplegu Sailaren datuak oinarri hartuta (Lan Baldintzei buruzko Inkesta)

Ia gazteen erdiek uste dute Euskadin erlijio edo sinesmenengatiko diskriminazioa oso edo nahikoa hedatua dagoela

Urtarrilaren hirugarren igandean Erlijioaren Munduko Eguna ospatzen da, erlijio-sinesmenengatik pertsonen arteko tolerantzia sustatzeko eta kultu-askatasuna eskubide unibertsal gisa errespetatzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak atera berri duen ikerketa baten arabera, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 11k uste du Euskadin erlijioarengatiko edo erlijio-sinesmenengatiko diskriminazioa oso hedatua dagoela eta beste % 35aren ustez, nahikoa hedatua dago. Guztira, gazteen % 46k dio gure autonomia-erkidegoan erlijio-sinesmenengatiko diskriminazioa oso edo nahikoa hedatua dagoela. Aitzitik, gazteen % 48k ez dagoela oso hedatua dio eta %6k ez dagoela batere hedatua.


18 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, Euskadin erlijio-sinesmenengatiko diskriminazioaren hedapenari buruz duten iritzia arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak kaleratutako datuak oinarri hartuta (*Aniztasuna eta Elkarbizitza*, 2022)

Gazteak dira erlijioarengatiko diskriminazioa oso edo nahikoa hedatua dagoela gehien diotenak. Ideia hau gero eta gutxiagok bereganatzen dute adinean gora egin ahala.


Euskadin erlijio-sinesmenengatiko diskriminazioaren hedapenari buruz dagoen iritzia, adinaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak kaleratutako datuak oinarri hartuta (*Aniztasuna eta Elkarbizitza*, 2022)

Aipatutako datuak Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako inkesta batetik datoz. Inkesta hori 2022ko urrian burutu zen eta bertan 1.314 pertsona elkarrizketatu ziren. Pertsona horietatik 409, 18 eta 29 urte bitarteko gazteak ziren. Datuak "[Aniztasuna eta Elkarbizitza](#)" izeneko txostenean kontsulta daitezke.

Gainera, neurketa gehienetan, lanean gora egin ahal izateko aukerekin oso pozik azaltzen diren emakume gazteen ehunekoak Euskadiko emakumeen batez bestekoaren antzekoak edo handiagoak dira.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Lan eta Enplegu Sailaren datuak oinarri hartuta (Lan Baldintzei buruzko Inkesta)

Aurkeztutako datuak Eustaten webgunean kontsulta daitezke, Gizartea atalean; zehazki, [Lan Ikuspegiari](#) buruzko estatistika-tauletan, Lan-Merkatuari buruzko azpiatalaren barruan.

Hezkuntza - Educación

Zientzia astea 2023


Urtero, azaroan, **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea** ospatzen da. Gazteen Euskal Behatokiak aste horretan parte hartu nahi du Euskadiko unibertsitateetako zientzien adarreko ikasketetan gizon eta emakume gazteek duten presentziari buruzko datu batzuk zabalduz.

2021/2022 ikasturtean, Euskadiko unibertsitateetan, 30 urtetik beherako 61.690 pertsona matrikulatu ziren mota guztietako gradu, master ofizial edo doktoretzetan. Erdiak baino gehiago emakumeak ziren; zehazki, 33.726 emakume eta 27.964 gizon.

Euskadin matrikulatutako 61.690 pertsona horietatik 3.907 zientzien adarreko graduetan, masterretan edo doktoretzetan apuntatu ziren. Zehazki, 2.865 gradu batean matrikulatu ziren, 311 masterren batean eta 731 doktorego batean. Zientzien adarrak honako titulazio hauek biltzen ditu: Biologia, Biokimika eta Biologia molekularra, Bioteknologia, Elikagaien zientzia eta teknologia, Ingurumen-zientziak, Fisika, Geologia, Matematikak eta Kimika.

Zientziek biltzen dute euskal unibertsitateetan matrikulatutako gazteen ehuneko txikiena, % 6,3 baino ez, baina egia da zientzien gradu gehienetan eskainitako plazen kopurua beste gradu mota batzuetan baino txikiagoa dela.


2021/2022 ikasturtean Euskadiko unibertsitateetan matrikulatutako
30 urtetik beherako ikasleen banaketa, ikasketa-adarraren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak (Unibertsitatearen estatistika) oinarri hartuta

Nolanahi ere, 2021/2022 ikasturtean zientzietako gradu, master edo doktoregoetan matrikulatutako 30 urtetik beherako emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izan zen: 2.020 eta 1.887, hurrenez hurren.

Arreta zientzien adarreko graduetan izandako matrikulazioetan soilik jartzen badugu (master ofizialak eta doktoregoak kontuan hartu gabe, beraz), ikusten da horiek nabarmen igo zirela 2010etik 2014ra, eta ordutik hona antzeko zifretan mantentzen direla, eskainitako plaza-kopuruak baldintzatuta, bestalde. Unibertsitateko gradu mota horretan matrikulatutako 30 urtetik beherako emakumeen kopurua adin bereko gizonena baino handixeagoa da aztertutako seriean.




Oharra: urteek ikasturtearen hasiera adierazten dute.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak (Unibertsitatearen estatistika) oinarri hartuta

2021/2022 ikasturtean, emakumeen presentzia nagusi izan zen ia zientzietako gradu guztietan, Fisikan eta Geologian izan ezik, non gizon gehiago zeuden emakumeak baino, eta Ingurumen-zientzietan, non gizonen eta emakumeen kopuruak ia berdinak ziren.

2021/2022 ikasturtean Euskadiko unibertsitateek eskaintzen dituzten zientzien adarreko graduetan matrikulatutako 30 urtetik beherako emakumeen eta gizonen ehunekoa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak (Unibertsitatearen estatistika) oinarri hartuta



GARAPEN  **HELBURUAK**
IRAUNKORRERAKO

Euskadin, eskola uzte goiztiarraren tasa % 5,6koa da


Euskadiko eskola uzte goiztiarraren ehunekoa Espainiako edo Europar Batasuneko batez bestearen azpitik dago

Gazteen Euskal Behatokiak badu bere web orrian online adierazleak kontsultatzeko atal bat eta aldian-aldian eguneratzen ditu adierazle horiek. Orain, hezkuntzari buruzko adierazleen artean, eskola uzte goiztiarrari dagokiona eguneratu berri dugu 2022ko datuak oinarri hartuta.

Euskadin, gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH edo parekideren bat) osatu eta maila altuagoko beste titulaziorik lortu ez duten 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa % 5,6koa da. Horri "eskola uzte goiztiarraren tasa" deitzen zaio.

Ehuneko horrek 2010 eta 2022 artean izandako bilakaerak erakusten du 2013tik aurrera %10en azpitik dagoela eta 2018tik hona % 7ren azpitik.

Eskola uzte goiztiarraren tasaren bilakaera Euskadin, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, INEk kaleratutako datuak (EPAtik datozenak) oinarri hartuta

Bakarrik derrigorrezko ikasketak bete dituzten 18 eta 24 urte bitarteko emakumeen ehunekoa bere adineko gizonen artean jasotakoa baino txikiagoa da (% 4,2 eta % 7,0, hurrenez hurren) eta horrela izan ohi da aztertutako urte gehienetan.

Bestetik, Espainiako beste autonomia erkidegoetan jasotako datuekiko alderaketak erakusten du Euskadik eta Nafarroak dituztela eskola uzte goiztiarraren tasa txikienak. Espainiaren batez bestekoa % 13,9 da.

Eskola uzte goiztiarraren tasa 2022an, autonomia erkidegoaren arabera (%)




**Autonomia erkidego horiei dagozkien datuak kontu handiz hartu behar dira, hango laginen tamaina txikia delako eta, ondorioz, lagin-errore handia izan dezakete.*

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, INEk kaleratutako datuak (EPAtik datozenak) oinarri hartuta.

Europar Batasunean jasotako datuekiko alderaketak ere agerian uzten du Euskadi 27 herrialdeen batez bestekoaren azpitik dagoela, Europar Batasunaren batez bestekoa, % 9,6 baita.

Eskola uzte goiztiarraren tasa 2022an, Europar Batasunaren herrialdeen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eurostatek kaleratutako datuen arabera

Aurkeztutako datuak zuzenean daude lotuta Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 4. helburuarekin, hau da, "Kalitatezko hezkuntza"rekin, eta, zehazkiago, helburu horren 3. eta 4. xedeekin:

4.3 xedea. Hemendik 2030era bitartean, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza teknikoa, profesionala eta goi mailakoa, unibertsitateko irakaskuntza barne, berdintasunez eskura dezaten bermatzea.

4.4. xedea. Hemendik 2030era, nabarmen handitzea enplegua, lan duina eta ekintzailatza lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak, bereziki teknikoak eta profesionalak, dituzten gazteen eta helduen kopurua.




GARAPEN  HELBURUAK
IRAUNKORRERAKO

Handitu da Zientzia eta Teknologian graduatutako gazteen kopurua Euskadin

Horietako heren bat soilik dira emakumeak


2015etik 2021era, handitu egin da Euskadiko unibertsitateetan Zientzia, Ingeniaritza edota Arkitekturako graduako ikasketak amaitu dituzten 35 urtetik beherako pertsonen kopurua. 2.153 pertsona izan ziren 2015ean eta 2.580 pertsona 2021ean.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek argitaratutako datuak oinarri hartuta (Unibertsitatearen Estatistika)

Zientzietan, Ingeniaritzetan eta/edo Arkitekturan graduatutako gizonen eta emakumeen kopurua handitu da baina proportzio berean mantentzen da; beraz, seriean zehar, mota horretako unibertsitate-gradueta graduatutako pertsona guztien herena inguru dira emakumeak.

Euskadiko unibertsitateetan, Zientzia, Ingeniaritza edota Arkitekturako graduaren bat amaitu duten 35 urtetik beherako pertsona guztietatik emakumeen portzentajea urte bakoitzean (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek argitaratutako datuak oinarri hartuta (Unibertsitatearen Estatistika)

Nolanahi ere, emakumeen proportzio txikiago hori ingeniartzetan duten presentzia txikiagoari lotuta dago; izan ere, zientzia-graduak soilik kontuan hartuz gero, emakumeen zifrak handixeagoak dira (zientzietan, graduatutako emakumeak graduatutako 35 urtetik beherako pertsona guztien % 57,6 ziren 2021ean).


Zientzia-gradu horien artean daude Biologia, Biokimika eta Biologia molekularra, Bioteknologia, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Ingurumen-zientziak, Fisika, Kimika, Geologia eta Matematika. Ez dira kontuan hartzen osasun-zientzietako graduak.

2021ean Zientzietan graduatutako 35 urtetik beherako pertsonen banaketa sexuka (%)



2021ean Ingeniaritzetan edota Arkitekturaren graduatutako 35 urtetik beherako pertsonen banaketa sexuka (%)

■ Emakumeak
■ Gizonak



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek argitaratutako datuak oinarri hartuta (Unibertsitatearen Estatistika)

Aurkeztutako datuek ez dute esan nahi, datu absolutuetan, emakumeek zientzien alde egiten dutenik Ingeniaritza edo Arkitekturaren alde baino; izan ere, 2021ean, Zientzia eta Teknologian graduatutako 858 emakumeetatik 557 (hau da, % 64,9) ingeniartzaren batean edo arkitekturaren graduatu ziren. Gizonen artean, berriz, ehuneko hori % 87,1era igotzen da. Baina zehaztu behar da Euskadiko unibertsitateetan ingeniartzetan eta arkitekturaren eskainitako plazak zientzia-graduaren eskainitakoak baino askoz gehiago direla.

Edonola ere, genero-rolak gainditu behar dira, eta emakume gehiago sartu behar dira ingeniartza-ikasketetan, baita gizon gehiago ere giza zientzietan eta osasun-zientzietan. Hori dela eta, Nazio Batuen Erakundeak Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna Zientzian ezarri zuen, emakumeek jarduera eta ikerketa zientifiko eta teknologikoan gehiago parte-hartzeko eta aintzatespen handiagoa izateko.


Aurkeztutako datuak Eustatek argitaratzen duen Unibertsitatearen Estatistikatik datoz, eta Gazteen Euskal Behatokiaren webguneko [online estatistiketan](#) kontsulta daitezke, **Hezkuntza** atalean, hain zuzen ere.

Euskadik 2021ean izan du eskola uzte goiztiarraren zifrarik baxuena: 4,8 %

Urtarrilaren 24an **Hezkuntzaren Nazioarteko Eguna** ospatzen da. Aurtengo leloa "Pertsonengan inbertitzea, hezkuntza lehenestea" da. Kalitatezko hezkuntza Garapen Jasangarrirako 17 helburuetako bat da.

Eskola uzte goiztiarrak haxe adierazten du: gehienez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) gainditu eta ikasketa edo prestakuntza gehiago jaso ez duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Euskadin eskola uzte goiztiarra % 4,8 izan da 2021ean (% 4,9 emakumeen artean eta % 4,7 gizonen artean). Portzentaje orokor hori 2010tik 2021era doan seriearen baxuena izan da, nahiz eta emakumeen artean pixka bat igo den 2018-2020 aldiarekiko.


Euskadiko 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren eskola uzte goiztiarraren tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten datuak oinarri hartuta

2021eko datu horiek (erabilgarri dauden azken datuak) Europar Batasunean jasotakoekin konparatuz gero, ikus dezakegu Euskadikoa Europako batez bestekoaren azpitik dagoela (%9,7 da EBko batez bestekoa) eta, Espainiako datuarekin alderatuz gero, aldea are handiagoa da (Espainian % 13,3 baita).

EB27ko 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren eskola uzte goiztiarraren
tasa 2021ean (%)



Datu horiek eta beraien bilakaera, bai eta sexuaren araberako banaketa ere, Gazteen Euskal Behatokiak bere webgunean eskaintzen dituen [estatistiketan](#) kontsulta daitezke, **“Hezkuntza”** izeneko atalean, hain zuzen ere.

Informazio orokorra

Información general

Euskadiko lau gaztetik hiruk interes handia edo nahiko handia dute klima-aldaketaren inguruan

Pasa den hilean, azaroan, online inkesta batean, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1.701 gazteri galdetu zitzaien **gaurkotasuneko hainbat gaitan interesa** ote zuten. Horietatik, gazteentzat **interesik handiena sortzen duena klima-aldaketa** da. Gazteen % 34,0k esan du interes handia duela gai horretan, eta beste % 40,4k nahikoa interes duela. Inkesta Dubaiko Klimaren Goi-bileraren (COP28) aurreko egunetan egin zen, azaroaren 30etik abenduaren 12ra bitartean izan baita goi-bilera hori.

Euskadiko gazteentzat **bigarren gairik interesgarriena Espainiako gobernu-eraketa** izan da. Gogoratu behar da Pedro Sanchezen izendapena presidente gisa azaroaren 16an izan zela eta alde zaurgarriak negoziatzeko egin zirela bozketarako beharrezko babesa lortzeko. Euskadiko gazteen % 30,1ek interes handiz jarraitu dute gobernuaren osatzearekin lotutako guztia, eta beste % 36,9k nahikoa interesekin.


Hirugarren gaia, euskal gazteriak erakutsitako interesaren arabera, **Gazako gerra** da. Hamasek Israelen urriaren 7an egindako eraso terroristaren eta Israelen Gazaren gainean urriaren 8an egindako erasoaldiaren ondoren piztu zen gerra. Gazteen % 25,5ek interes handia izan du gai horretan, eta beste % 37,8k nahikoa interes adierazi du.

Mediterraneoko migrazio-krisia laugarren postuan dago. 2023an nabarmen handitu da Europara Mediterraneo erdialdetik iritsi nahi duten migratzaileen fluxua, baita saiakera horretan hildako edo desagertutako pertsonen kopurua ere. Gobernuak Kanpoko Erakundeek behin eta berriz salatu dute gobernuaren jokabidea eta erreskateak egiteko dituzten zailtasunak. Gazteen % 19,2k diote interes handia dutela gai horren inguruan, eta beste % 34,5ek nahikoa interes dutela.

Ukrainako gerra, 2022ko otsailean hasi zena, **bosgarren lekuan** geratu zen. % 10,5ek interes handia du gai horretan, eta beste % 37,9k nahikoa interes.

Inkestan planteatutako gaietatik gazteei **interes gutxien sortarazten diena Covid19a** da. Pandemia 2020an hasi zen, eta etxeko eta udaleko konfinamenduak eragin zituen. Hala ere, 2023ko azaroan, gazteen % 4,0k baino ez zuen interes handia gai horretan, eta % 12,4k nahikoa interes zuen.

Zenbateko interesa izan du 2023ko azaroan 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteriak gaurkotasuneko hainbat gaitan (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2023

Jarraian, batera hartuko ditugu planteatutako gai bakoitzean interes handia edo nahikoa sentitu dutela diotenak, gazteen sexuaren edo adinaren arabera alderik dagoen ikusteko.

Ia ez dago alderik emakume eta gizon gazteen artean gai desberdinekiko duten interesari dagokionez; hala ere, egia da gizonek interes handiagoa izan dutela Espainiako gobernu-eraketan emakumeek baino.

**Planteatutako gai bakoitzean interes handia edo nahikoa interes duten
Euskadiko emakume eta gizon gazteen portzentajea (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2023

20 urtetik gorako pertsonen interes handiagoa dute 15-19 urteko pertsonen baino, bai klima-aldaketan, bai gaurkotasun bereziko gaietan 2023an, hala nola Espainiako gobernu-eraketan, Gazako gerran edo Mediterraneoan migrazio-krisian.

Aurreko urteetan garrantzi handiagoa izan zuten beste gai batzuetan, hala nola Ukrainako gerran edo Covid19an, ez dago alde nabarmenik adin-taldeen artean.

**Planteatutako gai bakoitzean interes handia edo nahikoa interes duten
Euskadiko gazteen portzentajea, adin-taldeen arabera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2023


Inkestak azaroaren 6tik abenduaren 1era bitartean egin ziren.

Abenduak 18, Migranteen Nazioarteko Eguna


Euskadin atzerriko nazionalitatea duten ia 50.000 gazte bizi dira, gazte guztiekiko % 15 dira

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak, 2000ko 55/93 ebazpenean, abenduaren 18a Pertsona Migratzailearen Nazioarteko Eguna izendatzea erabaki zuen. Ospakizun hori dela eta, Gazteen Euskal Behatokiak Euskadin bizi diren atzerritar nazionalitatea duten gazteen kopuruari buruzko datu eguneratuak aurkezten ditu. Datu horiek Eustaten Biztanleen Udal Estatistikatik datoz, Eustatek Gazteen Euskal Behatokiari 15-29 urteko pertsonen dagozkien zifrak eman baitizkio.

2023an, Euskadin 15-29 urteko 319.744 gazte bizi dira. Horietatik 66.626 atzerrian jaio ziren eta 49.389k atzerriko nazionalitatea dute. Azken hori da orain arte Euskadin erregistratu den atzerriko nazionalitatea duten gazteen kopururik handiena.




Atzerriko nazionalitatea duten pertsona horiek Euskadiko 15-29 urteko gazte guztien % 15,4 dira, eta proportzio hori, berriz ere, serieko handiena da.



Jarraian, atzerriko nazionalitatea duten gazteen barne-banaketa aurkeztuko dugu, sexuaren, adin-taldearen, bizilekuaren eta jatorrizko kontinentearen arabera, bai eta banaketa horiek azken hamabost urteetan izan duten bilakaera ere.


Azken hamabost urteetan atzerriko nazionalitatea duten gazteen osarak sexuaren arabera izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu atzerriko gizon eta emakume gazteen kopurua antzekoa izan dela seriean zehar, nahiz eta 2022an eta 2023an gizonen presentzia handiagoa izan den emakumeena baino (2.000 gizon inguru gehiago daude). Izan ere, 2023an % 52,1 gizonak dira eta % 47,9 emakumeak.

Euskadin bizi diren atzerriko nazionalitatea duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera, sexuaren arabera (absolutuak)




Bost urteko taldeen arabera banaketari dagokionez, serie osoan 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen presentzia handiagoa izan da, eta 15 eta 19 urte bitartekoena, aldiz, txikiagoa, nahiz eta azken horien artean 10.000 pertsonako kopurua gainditu den.

2023an, % 20,8k 15 eta 19 urte artean zituen, % 32,9k 20 eta 24 urte artean, eta ia erdiak, % 46,2k, 25 eta 29 urte artean. Banaketa hori ez dator bat Euskadiko gazte guztien banaketarekin, gazteria osoan bost urteko hiru taldeek antzeko pisua baitute.



Lurralde-banaketari dagokionez, Bizkaian dago, oro har, biztanle gehien, eta, beraz, atzerriar nazionalitatea duten gazte gehien ere bai. Gainera, Bizkaiak, Gipuzkoak bezala, 2023an izan du serieko atzerriko nazionalitatea duten gazteen kopururik handiena; Araban, aldiz, atzerriko nazionalitatea duten gazteen presentzia handiagoa izan zen 2009 eta 2013 artean 2023an baino.


Gaur egun, atzerriko nazionalitatea duten gazteen % 51,3 Bizkaian bizi da, beste % 32,7 Gipuzkoan eta gainerako % 16,0 Araban. Lurralde-banaketa hori Euskadiko gazteria osoaren antzekoa da.



Atzerriko nazionalitatea duten gazteen kopuruen bilakaerak, jatorrizko kontinentearen arabera, argi eta garbi erakusten du Amerikatik etorritako pertsonen nagusitasuna serie osoan zehar, eta, gainera, azken urtean areagotu egin da. 2023an, Euskadi biz diren atzerriko gazteen erdia baino gehixeago Amerikatik etorri da (% 52,7), horien barne banaketa oso desberdina bada ere: pertsona horietako gehienak Hego Amerikatik etorri dira (Euskadin bizi diren gazte amerikarren % 62,2), herenak baino gehixeago Erdialdeko Amerikatik edo Karibetik (% 35,4), eta % 2,4 eskas Ipar Amerikatik.


Bestalde, 2023an, Euskadin bizi diren gazte atzerritarren % 24,3 Afrikatik etorri da, % 15,9 Europatik eta gainerako % 7,2 Asiatik edo Ozeanitik. 2012tik 2023ra, Afrikatik Europatik baino gazte gehiago etorri da.

Euskadin bizi diren atzerriko nazionalitatea duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera, etorri diren kontinentearen arabera (absolutuak)



Euskadin bizi diren atzerriko nazionalitatea duten emakume gazte gehienak Amerikakoak dira. Eta hori aztertutako urte guztietan egiaztatu da. Gizonen artean, amerikarrek beste kontinenteetatik etorritakoek baino pisu handiagoa dute, baina ez dira gehiengo izatera iristen.


Atzerriko gizonen artean, afrikarren ehunekoa emakumeen artean osatzen dena baino handiagoa da. Izan ere, emakume gazte atzerriarren artean, afrikarrak baino europar gehiago daude, nahiz eta europarren pisua txikituz joan den urteen poderioz.




Hiru lurralde historikoetan, atzerriko nazionalitatea duten gazteen talde handiena Amerikatik etorritakoena da, baina Bizkaian pisu hori are handiagoa da gainerako lurraldeetan baino.

Kopuru absolutuetan Bizkaiak Afrikatik etorritako gazte gehiago dituen arren, horien garrantzi erlatiboa handiagoa da Araban, gaur egun lurralde horretan bizi diren atzerriko nazionalitatea duten gazte guztien ia herena osatzen baitute. Antzeko zerbait gertatzen da Gipuzkoan, Europako beste herrialde batzuetatik etorritako gazteen proportzio handiena baitu (kopuru absolutuetan Bizkaian gehiago bizi arren).

Euskadin bizi diren atzerriko nazionalitatea duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera, bizi diren lurralde historikoaren eta etorri diren kontinentearen arabera




Euskadin bizi diren atzerriar nazionalitateko biztanle guztiei erreparatuz gero (adin guztietako 203.661 pertsona), ikusten da laurden bat 15 eta 29 urte bitarteko gazteak direla (% 24,3, zehazki). 2008an, Euskadin bizi ziren atzerriarren batez besteko adina txikiagoa zen, eta orduan % 34,4k 15 eta 29 urte artean zituen.



Eta atzerriko nazionalitatea duten gazteen jatorria Euskadin bizi diren atzerritarren kolektibo osoak jatorriaren arabera duen banaketarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu gazteen artean Amerikatik etorritako pertsonen proportzio handiagoa eta europarren proportzio txikiagoa dagoela. Europatik Euskadira datozen gazteen fluxuak behera egin du apurka-apurka, eta, horren ondorioz, gazte europarrek garrantzia galdu dute gazteriaren kolektiboan, baina oraindik ere garrantzia dute atzerritar guztien artean; izan ere, gazteak ez diren arren, horietako askok Euskadin bizitzen jarraitzen dute.

Euskadin bizi diren atzerriko nazionalitatea duten biztanleen banaketa, jatorrizko kontinentearen arabera. Banaketa horren bilakera eta guztizkoen eta gazteen arteko alderaketa (%)



2030 Agendaren lehentasunen euskal programak, 2021-2024 aldirako jarduera-planean, migrazioekin lotutako konpromiso batzuk ezartzen ditu, zehazki 12.4 atalean jasotakoak, gizarte-politiken eta gazteriaren arloan. Jarraian zehazten dira konpromiso horiek (87, 88, 89 eta 90). 87. konpromisoa da: "Migrazio-egitatearen aurreko harrera-, integrazio- eta erantzunkidetasun-kultura zibikoa sustatzea eta hedatzea"; 88. konpromisoa: "migratzaileak hartzeko estrategia global bat finkatzea"; 89. konpromisoa: "asilo-politikaren euskal eredu bat definitu eta sustatzea"; eta 90. konpromisoa: "zaugarritasun-egoeran dauden migratzaileentzako babesa, estaldura eta laguntza".



2030 Agendaren

lehentasunen
euskal programa

2021-2024 Jarduera-plana

Konpromiso horiek, era berean, 1. (pobreziaren amaiera) eta 10. (desberdintasunak murriztea) garapen iraunkorrerako helburuekin lotuta daude.



GARAPEN  **HELBURUAK**
IRAUNKORRERAKO

Urriak 17, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguna


Euskadin, 2022an, pobrezia errealearen tasa 30 urtetik beherako gazteen artean % 4,8 zen

2022an, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 4,8 pobrezia egoeran zegoen.

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen pobrezia errealearen tasak gora egin zuen nabarmen 2012 eta 2018 urteen artean, aurreko urteekin konparatuta, baina 2020an jaitsi egin zen eta 2022an beheranzko joera horrekin jarraitu du.

Oro har, gazteen pobrezia tasak Euskadiko biztanleria osoarenak duen joera bera du, baina gazteei dagozkien zifrak batez besteko orokorraren gainetik daude urte gehienetan.

Euskadiko gazteei eta biztanleria osoari dagozkien pobrezia errealearen tasen bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzaren Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestaren datuak (PGEI) oinarri hartuta

Jarraian, 2022an kolektiboen artean jasotako desberdintasunak azalduko ditugu. Pobrezia errealearen tasa handiagoa zen emakume gazteen artean (% 5,1), gizon gazteen artean baino (% 4,5).

Adinaren arabera ere aldeak daude; tasa hori altuagoa zen 16 eta 19 urte bitartekoen artean (% 5,1) y txikitzen zihoan adinean gora egin ahala (25 eta 29 urte bitartekoen artean % 4,3 zen).

Baina alde esanguratsuenak lurralde historikoaren arabera dira: Arabako gazteen artean % 6,8 pobrezia egoeran zegoen eta Gipuzkoakoen artean, aldiz, % 4,1; Bizkaikoen tasa besteen artean zegoen, % 4,6 baitzen.

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren pobrezia errealearen tasa 2022an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Pobrezia- eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestaren datuak (PGEI) oinarri hartuta


Pobrezia egoeran dauden gazteei dagozkien datuen bilakaera Gazteen Euskal Behatokiaren web orrian dauden [online estatistiketan](#) kontsulta daitezke, “*Lana eta egoera ekonomikoa*” izeneko atalean eta, horren barruan, “*Pobrezia eta gizarte-bazterketako arriskua*” azpiatalean, hain zuzen ere.

Pobrezia-aren Amaiera da Nazio Batuen Erakundeak 2030erako ezarri zituen Garapen Iraunkorrerako Helburuetako lehena.



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

Gazteak eta Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agenda. Euskadiko gazteen ezagutza eta iritziak



Gazteen Euskal Behatokiak 2023ko ekainean Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri bati egindako inkesta.

Nazio Batuen Erakundeak ezarritako Garapen Jasangarrirako 17 helburuen artean, gazteen ustez, Euskadin ekiteko lehentasunezkoak hauek dira: hirugarrena, osasuna eta ongizatea,


zortzigarrena, lan duina eta hazkunde ekonomikoa eta laugarrena, kalitatezko hezkuntza.

Euskadiko gazteriaren ia erdiak Garapen Jasangarrirako Helburuen berri izan du (% 48,7). **Berezko ezagutza** handiagoa da goi-mailako ikasketak dituztenen artean (% 57,3), eta handixeagoa da Bizkaian (% 53,0), Gipuzkoan (% 44,8) edo Araban (% 42,1) baino.


2030 Agendaren berri izan dutenek ingurumena zaintzearekin, jasangarritasunarekin eta klimaren aldeko ekintzarekin lotzen dute nagusiki, eta, bigarrenik, desberdintasunak murriztearekin, genero-berdintasunarekin eta gizarte-justiziarekin.

Iradokitako ezagutza, 17 Garapen Jasangarrirako Helburuak zabaltzeko erabili den irudia oinarri hartuta, 10 gaztetik ia 8k (% 77,5ek) dute. Iradokitako ezagutza handiagoa da 25 urtetik beherakoen eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean.

Gazteei **Euskadin lehentasunezko helburuak** zeintzuk izan beharko luketen galdetzen zaienean, osasuna eta ongizatea, lan duina eta hazkunde ekonomikoa eta kalitatezko hezkuntza dira gehien aipatu diren hiruak. 2022. urtearekin alderatuta, nabarmen igo dira osasunarekin eta lan duinarekin lotutako helburuen aipamenak, eta behera egin du Euskadin ekiteko lehentasunezko helburuen artean energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea aipatu duten gazteen ehuneak.



Gazteek Eusko Jaurlaritza (% 53,0) eta elkarteak eta Gobernu Kanpoko Erakundeak (% 34,1) aipatu dituzte, **2030 Agenda gehien bultzatzen ari diren bi erakunde** zein diren galdetu zaienean.



Baina bost eragiletako zerrenda bat proposatzean eta Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko **zein hiru diren gehien egin dezaketenak** galdetzean, % 84,1ek erantzun dute gobernuak edo administrazioak direla, % 60,7ren ustez herritarrak eta % 52,8ren iritziz enpresak; beste % 49,6k komunikabideak aipatu ditu eta % 17,1ek Gobernu Kanpoko Erakundeak.


2030 Agendan jasotako lau gai garrantzitsuk azken urtean mundu mailan izan duten **bilakaerari** buruzko gazteen iritzia **ezkorra** da, oro har.

Gazteen ia erdiek uste dute **klima-aldaketaren aurkako borrokaren** munduko egoera berdin mantendu dela azken urtean (% 48,8), eta antzeko ehunekoa dute hobera egin duela uste dutenek (% 22,0) eta okerrera egin duela uste dutenek (% 20,0).

Hamar gaztetik lauk uste dute munduan **giza eskubideen sustapena** iazkoaren antzeko egoeran dagoela (% 41,2), eta gehixeago dira bilakaera negatiboa izan dela uste dutenak (% 27,1) positiboa izan dela uste dutenak baino (% 22,1).

Gazteen % 18,0k soilik uste du **ekonomia jasangarriaren eta kalitatezko enpleguaren sustapenaren** mundu mailako egoera hobetu egin dela; dezente gehiago dira berdin jarraitzen duela (% 37,4) edo okerrera egin duela (% 34,7) uste dutenak.


Pertzepzio negatiboena munduko **pobrezia gainditzeari** buruzkoa da: soilik % 7,3k uste du hobera egin duela, eta % 39,8k, berriz, okerrera egin duela uste du.



Azkenik, azterlanak **1.000 gaztek baino gehiagok egindako ekarpenak jasotzen ditu, bere gain hartzeko prest egongo liratekeen konpromisoei buruz**, honako arlo hauetan laguntzeko: gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzen laguntzea, genero-berdintasuna lortzen laguntzea, ingurumena hobetzen laguntzea, diskriminazioen aurrean aniztasuna eta bizikidetzaren errespetatzea eta gizartearen intereserako jarrera arduratsuak eta parte-hartzaileak asumitzea.

Erronka horiek lortzeko, gazteek proposamen orokor batzuk planteatu dituzte, guztientzat baliagarriak direnak: informazio gehiago biltzea, hausnartzea eta autokritika egitea, aurreiritziak alde batera uztea eta aniztasuna errespetatzea, aniztasunean berdintasuna defendatzea, salatzea eta mobilizatzea, erantzukizunak hartzea, proaktiboak izatea eta hurbileko ingurunean ekintza zehatzetan parte hartzea.

Helburuei lotuta, bere gain har litzaketen konpromiso orokorrak




Hamar urte barru, Euskadin, 15 eta 29 urte bitarteko 40.000 gazte gehiago inguru egongo dira

65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua are gehiago handituko da eta, ondorioz, nagusien zenbatekoak ia bikoiztu egingo du gazteena

Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, burutzen dituen demografia-proiekzioen arabera, Euskadik 2033an 2023an baino 65.200 biztanle gehiago izango ditu, baina biztanleriaren hazkunde hori ez da berdina izango adin-tarte guztietan; izan ere, 40 eta 49 urte bitartean, bai eta 5 eta 14 urte artean ere, nabarmen jaitsiko da biztanleen kopurua.


Euskadiko biztanleriak 2023tik 2033ra izango duen bilakaerari
buruzko proiektzioa, bost urteko adin-taldeen arabera
(milakoak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten demografia-proiekzioak oinarri hartuta


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kasuan, 40.900 gazte gehiago egongo dira hamar urte barru; gazteen zenbatekoa 314.900 izatetik 355.800 izatera pasatuko da 2023tik 2033ra, nahiz eta 15 eta 19 urte bitartekoak orain baino pixka bat gutxiago izango diren.

15 eta 29 urte bitartekoen hazkundeak kontuan hartzen du, alde batetik, orain 5-19 urte dituztenek 2033an 15-29 urte izango dituztela eta, bestetik, gazteen migrazio-saldoa positiboa izango dela.




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten demografia-proiektzioak oinarri hartuta

Gazteen indizea, Euskadiko biztanleria osoarekiko gazteen proportzioa adierazten duena, handituko da eta % 14,4tik % 15,8ra igoko da 2023tik 2033ra.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten demografia-proiektzioak oinarri hartuta

Hala ere, 64 urte baino gehiago dutenen kopurua nabarmen handituko denez, 15 eta 29 urte bitartekoen eta 64 urtetik gorakoen arteko ratioak erakusten digu etorkizunean biztanleria zaharragoa izango dela: 2033an 64 urtetik gorako 100 pertsonetik 56,1 gazte egongo dira, eta 2023an ratio hori 62,3 da. Hau da, 2033an, nagusien (>64) zenbatekoak ia bikoiztu egingo du gazteena (15-29).



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten demografia-proiektzioak oinarri hartuta

Eusko Jaurlaritzak 2022an onartu zuen Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia. Estrategia horretan, hainbat neurri jasotzen dira demografiaren berreskurapenaren aldeko baldintza-ekosistema bat eratzeko. Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategia bi dokumentutan aurkezten da, eta esteka hauetan kontsulta daitezke:

I. [Esparru orokorra](#)

II. [Dokumentu operatiboa](#)

Irailak 22: Kotxe gabeko munduko eguna

Kotxea gutxiago erabiltzeak lotura zuzena du Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 11. helburuarekin, "**Hiri eta komunitate jasangarriak**" izenekoarekin.



GARAPEN
IRAUNKORRERAKO  HELBURUAK


Eta, zehazkiago, helburu horren 2. xedearekin du zerikusia. Hauxe dio 2. xede horrek: *"Hemendik 2030era, garraio-sistema seguru, eskuragarri, irisgarri eta jasangarrietarako sarbidea ematea guztiontzat, eta bide-segurtasuna hobetzea, bereziki garraio publikoa zabalduz, arreta berezia eskainiz egoera ahulean dauden pertsonen, emakumeen, haurren, desgaitasunen bat duten pertsonen eta adinekoen beharrei".*

2022an, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko lau gaztetik hiruk zioten normalean garraio publikoa erabiltzen zutela (% 76,3) eta erdiak baino gehixeagok oinez edo bizikletaz joaten zirela beren lanera edo ikasketa-zentrora (% 54,0).

Bi portaera horiek, kotxea gutxiago erabiltzearekin lotuta daudenak, ohikoagoak izaten dira adinean behera egin ahala. Bestalde, hedatuxeago daude emakume gazteen artean, gizon gazteen artean baino.

Bestetik, garraio publikoa gehien erabiltzen dute Bizkaian bizi diren gazteek, baina lanera edo ikasketa-zentrora oinez edo bizikletaz gehien joaten direnak Arabako gazteak dira.

2022an lanera edo ikasketa-zentrora oinez edo bizikletaz joaten zirela edo garraio publikoa erabili ohi zutela zioten Euskadiko 15-29 urteko gazteen portzentajea (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022)


Gazteen Euskal Behatokiak "Gazteak eta sare sozialak. Euskadiko gazteen ohiturak eta portaerak 2022an" argitaratu du

Instagram da Euskadiko gazteek egunero gehien erabiltzen duten sare soziala, eta TikTok da gehien hazi dena

Gazteen Euskal Behatokiak egin du txostena, 2022ko urriaren 25etik azaroaren 2ra online egindako inkesta bati 3.000 gaztek emandako erantzunetan oinarrituta.

Bat-bateko mezularitzako aplikazioen ondoren, Instagram da gazteek egunero gehien erabiltzen duten sare soziala (% 77,6) eta, batez ere, emakume gazteek erabiltzen dute (% 83,1).

Sare sozialen eguneroko erabileraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean



* 2021ean Spotifyri buruz bakarrik galdetu zen eta 2018an ez zen sartu aukera hau.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

TikTok da azken urteetan eguneroko erabileran gehien hedatu den sare soziala (2018an gazteen % 0,8k erabiltzen zuen egunero eta 2022an % 34,3k erabiltzen du). 15 eta 19 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok erabiltzen dute egunero.


Sare sozialen erabileraren maiztasunaz gain, txostenak honako hauei buruzko datuak ematen ditu: Interneteko edukien sorrera, ziberaktibismoa, gazteek gehien jarraitzen dituzten youtuberrak, influencer-ak eta gamerrak, sare sozialetan gehien erabiltzen diren hizkuntzak eta, azkenik, sare sozialen bidezko jazarpenaren pertzepzioa.

Euskadin biztanleriaren batez besteko adina 45,7 urtekoa da eta 15 eta 29 urte bitarteko gazteak biztanleria osoaren % 14,2 dira

64 urtetik gorako 100 biztanleko 15 eta 29 urte bitarteko 61,3 gazte daude

Euskadiko biztanleriaren batez besteko adina 45,7 urtekoa da, Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, argitaratu dituen azken datuak oinarri hartuta (2022ko uztailaren 1ekoak). Batez besteko hori Europar Batasuna osoari dagokiona baino altuagoa da, EBko biztanleriaren batez besteko adina 44,4 urtekoa baita.


Italia, Portugal, Grezia eta Alemaniaren biztanleriak gurea baino apur bat zaharragoak dira. Eta Zipre, Irlanda eta Luxenburgo dira, Europar Batasunean, beren biztanleriaren batez besteko adina 40 urtetik behera duten herrialde bakarrak.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten eta Eurostaten datuak oinarri hartuta

Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko 310.433 gazte bizi dira eta gure autonomia erkidegoko biztanle guztien % 14,2 dira.

Gazteek Euskadiko biztanleria osoan duten pisua Europako txikienetakoa da (Europar Batasunean gazteen proportzioa, batez beste, % 16,2koa da).



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten eta Eurostaten datuak oinarri hartuta


Bestetik, kalkulatzan badugu 64 urtetik gorako 100 pertsonako zenbat 15 eta 29 urte bitarteko gazte dauden Euskadin, ikusten dugu ratioa 61,3 dela.

Orain dela 10 urte, 2012an, 71,5 gazte zegoen 100 nagusiko. Urte hauetan gazteen ratioa, biztanleria nagusiarekiko, ehuneko hamar puntu jaitsi da.

Eta zifra hori Europar Batasuneko herrialdeetan erregistratutakoarekin alderatuz gero, ikusten dugu EBko batez bestekoaren (76,8) azpitik egoteaz gain, Europako baxuena dela.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua 64 urtetik gorakoena baino handiagoa da Luxenburgon, Irlandan eta Zipren bakarrik.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen ratioa 64 urtetik gorako 100 biztanleekiko
2022an, EBko herrialdeka (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten eta Eurostaten datuak oinarri hartuta

Eusko Jaurlaritzak 2022an onartu zuen Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia. Estrategia horretan, hainbat neurri jasotzen dira demografiaren berreskurapenaren aldeko baldintza-ekosistema bat eratzeko. Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategia bi dokumentu bereizitan aurkezten da, eta esteka hauetan kontsulta daitezke:

[I.Esparru orokorra \(PDF, 1 MB\)](#)

[II.Dokumentu operatiboa \(PDF, 313 KB\)](#)



Maiatzak 15, Familien Nazioarteko Eguna

2023an Familien Nazioarteko Egunak arreta jartzen du aldaketa demografikoaren megatendentzian eta horrek familietan duen eraginean.

Euskadin, 2016an (argitaratutako Inkesta Demografikoaren datu berrien urtea), 58.100 familia zeuden, zeintzuetan erreferentziako pertsonak 35 urte baino gutxiago zituen. Kopuru horrek Euskadiko familia guztien % 6,5 suposatzen du. Datu horiek ikusita, argi geratzen da gure autonomia erkidegoan oso familia gazte gutxi daudela.


Gainera, zifra hori 2001ean izandakoarekin konparatuz gero (eta horretarako 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda hartu dugu kontuan), ikusten da familia gazteen kopurua, hau da, erreferentziako pertsona 35 urtetik beherakoa denean, asko murriztu dela urte gutxitan: 2001ean 104.916 familia ziren (familia guztien % 14,0) eta 2016an 58.100 familia.

2016ko datuen arabera, familia gazteen % 41,3 pertsona bakarrekoak ziren, % 26,0 seme-alabarik gabeko nukleodunak, hau da, seme-alabarik ez zuen bikote batek osatuak, eta beste % 6,0 pertsona bat baino gehiagokoak, eta pertsona horien artean ahaidetasuna egon zitekeen, baina ez zuten bikoterik osatzen. Hiru kategoria horiek gehituta ikusten da familia gazteen % 73,3k ez zuela seme-alabarik.

Bestetik, familia gazteen % 19,3 seme-alabak zituen nukleodunak ziren, hau da, seme-alabak zituen bikote batek osatuak. Gazteen kasuan ez bezala, familiaren erreferentziako pertsona 35 eta 64 urte bitartekoa zenean, seme-alabak zituen bikoteak osatutako familia mota zen ohikoena (% 49,2).

Gainera, familia gazteen % 5,2 guraso bakarrekoak ziren, hau da, seme-alabak zituen ama edo aita batek osatuak. % 1,9 familia zabalduak ziren, hau da, edozein motatako familia nukleoduna (seme-alabekin edo seme-alabarik gabe) eta bertan pertsona bat edo batzuk bizi ziren elkarren artean ahaidetasuna izanik. Gainerako % 0,3 nukleo anitzeko familiak ziren, nukleo bi edo gehiago zituztenak.


Erreferentziako pertsona 35 urtetik beherakoa den familia moten banaketa (%)



Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak interesa du Europar Batasunarekin lotutako gaietan (% 51,9)

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 14,8k Europar Batasunarekin lotutako gaietan interes handia duela dio. Beste % 37,1ek nahikoa interes duela esan du. Guztira, gazteen erdiak (% 51,9) interesa du Europar Batasunaren inguruko gaietan.


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, Europar Batasunarekin lotutako gaietan duten interesaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022)

Gizon gazteak emakume gazteak baino interesatuago agertzen dira Europar Batasuneko gaiei dagokienez. Gai honi buruzko interesa handitzen doa adinean gora egin ahala ere.

15 eta 29 urte bitarteko gazteek Europar Batasunarekin lotutako gaietan duten
interes maila, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022)

Datu hauek Gazteen Euskal Behatokiak 2022ko urriaren 25etik azaroaren 2ra arte egindako inkesta online batetik atera dira.

Gainera, 2023an, Europar Batasunean konfiantza duten 18 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa % 53 da, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratu duen azken Euskal Soziometroan agertutako datuen arabera (79. Euskal Soziometroa).

Euskadiko gazteek Europar Batasunean duten konfiantzaren bilakaera aztertuz gero, ikus dezakegu 2010ean, seriearen hasieran, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gutxiago zirela Europar Batasunean konfiantza zuten gazteak (% 47). Krisialdi ekonomikoarekin batera, konfiantza jaitsi zen eta 2014an gazteen % 39k esaten zuen konfiantza zuela EBn. Geroago, Europar Batasunak gazteen konfiantza berreskuratu zuen eta, 2019 eta 2022 artean, % 60tik gora zegoen. 2023an berriro jaitsi da, baina, hala ere, 2019aren aurretiko zifretatik gora mantentzen da eta aurreko Europar Batasunean konfiantza duten gazteen ehunekoa % 53 da.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta (Euskal Soziometroak seriea)


“Bakea, Justizia eta Institutuzio sendoak” da Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 10. helburua.



Jaitsi egin da bere gurasoak gaztetan baino hobeto bizi direla uste duten gazteen kopurua

2022 urtearen amaieran, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiek baino gehixeagok (%53,2) uste zuten bere gurasoak baino hobeto zeudela, baina gurasoek gaztetan zeukaten egoerarekin, ez oraingoarekin, konparatuta.


Ehuneko hori aurreko urteetan izandakoa baino txikiagoa da eta 2013an soilik (orduan erregistratu ziren mende honetako langabezia-tasarik altuenak) izan zen oraingoa baino baxuagoa.



Bere gurasoak, bere adina zutenean, zeuden egoerarekin konparatuta, hobeto daudela uste duten gazteen ehunekoaren jaitziera ez da gazteek, egoerari buruz, duten pertzepzioa okertzen ari dela aditzera ematen duen adierazle bakarra; norberaren poztasun indizea ere jaitsi egin da. Azken adierazle horrek norberaren bizitzaren hainbat alderdirekiko poztasuna edo gogobetetasuna neurtzen du, hala nola, osasuna, ikasketa maila, lan egoera, familia-egoera, dirua, emantzipazioa, aisialdia, etab. Indize horrek 2022ko bukaeran 70 puntu biltzen zituen 0 eta 100 arteko eskalan eta hori 2013an hasitako seriearen baliorik baxuena izan da.

Gainera, etorkizunarekiko konfiantza indizea -norberaren egoerak, gazteriarenak, oro har, eta Euskadiko egoera orokorrak datozen bost urteetan izango duten bilakaerarekiko konfiantza neurtzen duena- ere jaitzi da eta seriearen baliorik baxuena izan du 2022an (54 puntu, 0-100 arteko eskalan).


Norberaren poztasun indizearen eta etorkizunarekiko konfiantza indizearen bilakaera 15-29 urteko gazteen artean



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira seriea)

Taldeen arteko aldeei erreparatuz gero, ikus daiteke gurasoak gazteak zirenean baino hobeto bizi direla uste duten gizon gazteen ehunekoa emakume gazteena baino handixeagoa dela (% 55,9 eta % 50,3, hurrenez hurren), baina alderik handiena adinak ezartzen duela: adinean gora egin ahala jaitsi egiten da gurasoak, gaztetan, baino hobeto bizi direla uste duten gazteen ehunekoa; hala, 15 eta 19 urte bitartekoen artean % 67,6 da eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, aldiz, % 35,0ra jaisten da.

Bere gurasoen gaztaroarekin konparatuta, hobeto bizi direla uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta adinaren arabera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022)

Euskadin 61,3 gazte daude 64 urtetik gorako 100 pertsonako


Gazteen Euskal Behatokiak Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) Biztanleriaren Udal Estatistikatik ateratako datu demografikoak aurkezten ditu.

2022ko urtarrilaren 1ean, Euskadiko biztanleria 2.186.517 pertsonakoa zen; horietatik 310.433, 15-29 urteko pertsonak ziren eta 506.596, 64 urtetik gorakoak.

Bi adin talde horiek harremanetan jarriz gero, zera ikusten dugu: Euskadin 64 urtetik gorako 100 pertsonako, gaur egun, 15 eta 29 urte bitarteko 61,3 pertsona daude. Kalkulu horren emaitza etengabe jaitsi da azken urteetan, 2012ko 71,5etik egungo 61,3ra.

Gizonen eta emakumeen bizi-itxaropenetan dauden aldeak eta 64 urtetik gorakoen artean sexuaren arabera dagoen proportzioak (215.969 gizon eta 290.627 emakume) alde handia eragiten du 64 urtetik gorakoen eta gazteen artean, sexuaren arabera. Gizonen artean, 64 urtetik gorako 100 gizoneko 73,8 gizon gazte daude; emakumeen artean, berriz, nabarmen txikiagoa da, 64 urtetik gorako 100 emakumeko 52,0 emakume gazte baitaude.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopuruaren bilakaera,
64 urtetik gorako 100 pertsonako




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTATen datuetan oinarrituta

Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiaren web-orriko estatistiketan](#) kontsulta daitezke, zehazki, "**Demografia eta biztanleria**" atalean.

Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko 310.433 gazte daude, biztanleria osoaren % 14,2


Euskadin biztanleria gazteak beheranzko joera izan zuen, eten gabe, 2010etik 2016ra arte, azken urte horretan erregistratu baitzen 15 eta 29 urte bitarteko gazte kopururik txikiena (283.517). Geroago kopuru hori handitu da eta 2022ko urtarilaren 1ean Euskadin adin horretako 310.433 bizi ziren.

Gizon eta emakume gazteen kopurua antzekoa da: 159.433 gizon eta 151.000 emakume.



Iturriak: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten datuetatik abiatuta

Biztanleria gazteak pisu txikia du Euskadiko biztanleria osoan, % 14,2 baino ez. Edozelan ere, proportzio hori handitu da aurreko urteetan izandakoekin alderatuta, 2013tik orain arte % 14ren azpitik baitzegoen.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten datuetatik abiatuta

Datu horiek eta beraien bilakaera, bai eta sexuaren edo lurralde historikoaren arabera banaketa ere, Gazteen Euskal Behatokiak bere webgunean eskaintzen dituen [estatistiketan](#) kontsulta daitezke, "**Demografia eta biztanleria**" izeneko atalean, hain zuzen ere.


Kultura - Cultura

Abenduak 3, Euskararen Eguna

Handitu da lagunekin euskaraz hitz egiten duten gazteen kopurua, baina oraindik bakarrik Gipuzkoan osatzen du gehiengoa

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatzen da. Hori dela eta, Gazteen Euskal Behatokitik euskararen erabilpenaren inguruko datu batzuk aurkeztuko ditugu. Datuok EAS, Euskararen Adierazle Sistematik hartu ditugu eta 16 eta 24 urte bitarteko gazteei dagozkie.

2001etik 2021era handitu da lagunekin euskaraz bakarrik, euskaraz erdaraz baino gehiago edo euskaraz erderaz beste hitz egiten duten 16 eta 24 urte bitarteko gazteen portzentajea, % 24,7tik % 37,8ra, hain zuzen ere.




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EAS, euskararen adierazle sistemak eskainitako datuak oinarri hartuta

Igoera hori ez litzateke posible izango euskararen ezagutza handitu izan ez balitz. Eta ezagutzaren igoeran bi eragile garrantzitsu azpimarratuko ditugu, nahiz eta gehiago egon. Alde batetik, etxean egiten den hizkuntza eta, bestetik, ikastetxean erabiltzen dena.

Etxean jasotakoari erreparatuz gero, ikus dezakegu 2001etik 2021era nabarmen igo dela lehen hizkuntza (etxean hiru urte bete arte entzun dutena) euskara edo euskara eta erdara batera izan duten gazteen portzentajea, % 22,8tik % 37,9ra. Horrek esan nahi du txikitatik euskaraz hitz egiten dakiten gazteen kopurua ia bikoiztu egin dela azken hogeitaz urteetan, gurasoek edo umeei egoten diren beste senideek ere euskara dakitelako eta erabiltzen dutelako.


Lehen hizkuntza euskara bakarrik edo euskara erdararekin batera izan duten 16-24 urteko gazteen portzentajeen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EAS, euskararen adierazle sistemak eskainitako datuak oinarri hartuta

Handitu egin da, halaber, normalean etxean euskaraz hitz egiten duten gazteen kopurua. Beti euskaraz, euskaraz erdaraz baino gehiago edo euskaraz erdaraz beste hitz egiten dutenen portzentajeak batera hartzen baditugu ikus dezakegu % 14,2 izatetik % 27,0 izatera igaro direla 2001etik 2021era.

Etxean beti euskaraz, euskaraz erdaraz baino gehiago edo euskaraz erdaraz beste hitz egiten duten 16-24 urteko gazteen portzentajeen bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EAS, euskararen adierazle sistemak eskainitako datuak oinarri hartuta

Kontuan hartzekoa da, edozelan ere, alde handia dagoela txikitzen lehen hizkuntza euskara (bakarrik edo erdararekin batera) izan duten gazteen portzentajearen eta orain etxean euskara erabiltzen dutenen portzentajearen artean; 2021eko datuak oinarri hartuta, hamar puntuko arrakala dago, hau da, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 37,9k euskara


ikasi zuten etxean txikitan baina orain % 27,0k erabiltzen dute euskara etxean. Argi dago gazte batzuek euskararekiko atxikimendua galtzen dutela nerabezaroan.

Bestetik, hezkuntza sistemak ere eragin handia izan du lagunekin euskara erabiltzearen igoera horretan. 2001/2002 ikasturtetik 2021/2022 ikasturtera nabarmen igo dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) D ereduan matrikulatutako ume eta nerabeen portzentajeak. Horrek esan nahi du ikasle gehiagok ikasten dutela euskaraz eta, ondorioz, euskaraz komunikatzeko gaitasuna lortzen dutela, bai eta euskaraz hitz egiten dakiten lagunak egiten dituztela ere.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EAS, euskararen adierazle sistemak eskainitako datuak oinarri hartuta


Orain lagunekin erabiltzen den hizkuntzari sakonago helduko diogu. Aipatutako euskararen erabileraren igoera hori ez da berdina izan lurralde historiko guztietan. Araban etengabeko igoera egon da eta hogeitau urte hauetan 18,2 puntukoa izan da. Bizkaian, aldiz, atzera pausoak ere egon dira eta 2001etik 2021era izandako igoera 5,7 puntukoa izan da bakarrik. Gipuzkoan goranzko joera egon da eta hasieran portzentajerik handiena izan ez ezik, igoerarik handiena ere izan du (21,4 puntuko igoera, hain zuzen ere). Hori dela eta, Gipuzkoan ia hiru gaztetik bik euskaraz hitz egiten dute lagunekin (euskaraz bakarrik, erdaraz baino gehiago edo erdaraz beste).



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EAS, euskararen adierazle sistemak eskainitako datuak oinarri hartuta

Argi dago oraindik asko dagoela egiteko Euskadiko gazteen artean euskara hizkuntza normalizatua izatea nahi badugu. Jakin badakite, baina testuinguru informaletan gutxi erabiltzen dute.

Baina erabilera urria ezin zaie gazteei bakarrik leporatu. Biztanleria osoari dagozkion datuak begiratu ondoren, ondoriozta dezakegu gazteek neurri handiagoan erabiltzen dutela euskara lagunekin, biztanleria osoak baino.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EAS, euskararen adierazle sistemak eskainitako datuak oinarri hartuta

2030 Agendaren lehentasunen euskal programak 2021-2024 aldirako hainbat konpromiso hartzen ditu bere gain. Euskarari dagozkionak 18.1 eta 18.2 arloetan azalduta daude, hala nola, "euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko presentzia indartzea", "euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabilera azpimarratzea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan" edota "hizkuntza-eskubideen erabateko errespeturantz eta normalizatutako hizkuntza-bizikidetzak baterantz aurrera egitea", besteak beste.

Euskara, gure kultura-ondarea den heinean, babesteko beharra dugu denon artean.



2030 Agendaren

lehentasunen
euskal programa


2021-2024 Jarduera-plana

Otsailaren 21a Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna

Gazteen Euskal Behatokiak 2022ko abenduan eginiko azken inkestan, **atzerrian jaiotako** 15 eta 34 urte bitarteko 324 pertsonak parte hartu zuten. Horietako 56k (% 17,3) euskaraz osatu zuten, nahiz eta euskara beren ama hizkuntza ez izan.

Gazteen Euskal Behatokiak zorionak ematen dizkie atzerrian jaiotako pertsona horiei euskara ikasi dutelako eta egunero erabili nahi dutelako.

Beste herrialdeetan jaiotako gazteek zein hizkuntzatan osatu duten inkesta (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022ko abendua)

Lana - Trabajo


Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 12,8 da 2023ko hirugarren hiruhilekoan

Euskadiko gazteen langabezia-tasa ehuneko 0,5 puntu igo da 2023ko bigarren hiruhilekotik hirugarrenera, baina, 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin konparatuta, 1,3 puntu jaitsi da.

Datu horiek Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestaren emaitzak dira, 2023ko hirugarren hiruhilekoari dagozkionak, hain zuzen ere. BJA Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitarteko gazteen datuak helarazten dizkio, azken honek gazteen egoera aztertu ahal izateko.

Langabezia-tasak zera adierazten du: enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren eta azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsona aktiboen ehunekoa. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabilen ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

Euskadiko 16-29 urteko gazteen hiruhilekoko langabezia-tasaren bilakaera (%)




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta
(Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA)*

2012tik, langabezia-tasak hirugarren hiruhilekoetan izan duen bilakaerak erakusten du egungo tasa azken hamarkadako onena dela, bai eta pandemiaren aurreko urteetan izandakoak baino hobea dela ere.

2020tik hona, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasaren eta 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren tasaren arteko aldea murriztu den arren, 2023ko hirugarren hiruhilekoan 5,3 puntutakoa da oraindik ere.

Euskadiko 16-29 urteko gazteen eta 16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera 2012ko hirugarren hiruhilekotik 2023ko hirugarren hiruhilekora (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta
(Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA)

2023ko hirugarren hiruhilekoan, emakume gazteen langabezia-tasa (% 12,2) gizon gazteena (% 13,3) baino txikiagoa da.

Emakume eta gizon gazteen langabezia-tasak, 2019tik 2023ra, urteko hirugarren hiruhilekoetan izandako bilakaeraren azterketak erakusten du emakume gazteen langabezia-tasak gizonena baino jaitsiera handiagoa izan duela 2022ko hirugarren hiruhilekotik oraingora.

Euskadiko 16-29 urteko gazteen langabezia-tasaren bilakaera 2019ko hirugarren hiruhilekotik 2023ko hirugarren hiruhilekora, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta
(Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA)

Datu horiek zuzenean lotuta daude **Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren** 8. helburuarekin, "**Lan duina eta hazkunde ekonomikoa**", eta, zehazkiago, 8.5 helmugarekin: *Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina lortzea emakume eta gizon guztientzat, baita gazteentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat ere, eta balio bereko lanagatik ordainsari berdina jasotzea.*



Euskadin iaz gertatutako lan-istripuen % 22,9etan biktimak 16 eta 34 urte bitarteko gazteak ziren


Laneko ezbehar-tasa handiagoa da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino

2022an, Euskadin, Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen baja eragin zuten 34.282 lan-istripu gertatu ziren. Istripu horietatik, 35 urtetik beherako langileei zegozkienak 7.853 ziren; hau da, 2022an izandako lan-istripuen % 22,9etan biktimak 16 eta 34 urte bitarteko gazteak ziren.

Gizarte Segurantzaren afiliatutako 35 urtetik beherako gazteen artean, baja eragin duten lan-istripuen bilakaera enpleguaren egoerarekin lotuta dago. 2008an hasitako krisi ekonomikoaren ondorioz, enplegu-tasek behera egin zuten (eta langabezia-tasak, aldiz, gora), eta lan-istripuek ere behera egin zuten. Era berean, COVID19aren pandemiak eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen (ERTE) hazkundeak baja-partea zuten lan-istripuen beherakada ekarri zuten.

Lan-istripuak ohikoagoak dira gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino, baina joera antzekoa da kasu bietan.

Euskadin Gizarte Segurantzaren afiliatutako 16-34 urteko langileen baidun lan-
istripuen kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera (absolutuak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, OSALANek emandako datuak oinarri hartuta

Izan ere, Gizarte Segurantzaren afiliatutako 16-34 urteko biztanleen laneko (lantokian edo joan-etorrietan) istripuen kopurua jasotzen duen laneko ezbehar-tasaren indizea kalkulatzeko badugu, ikusten dugu 2022an, guztira, milako 38,9koa dela, alde handiarekin gizon eta emakume gazteen artean: gizonen artean, milako 54,7koa da, eta emakumeen artean, milako 21,2koa.

Bestalde, gazteen adinak gora egin ahala, lan-istripuek ere gora egiten dute, 2022ko datuak biltzen dituen hurrengo taulan ikus daitezkeen bezala, eta horrek zerikusia du enplegua duten eta, beraz, lan-istripuren bat (lanean edo joan-etorrietan) izateko arriskua duten pertsonen kopurua handitzearekin.

Hala ere, laneko ezbeharren kopuruaren igoera ez da mailaz mailakoa; izan ere, 25 urtetik beherako gazteen lan-istripuen kopurua ez da 25-29 urtekoei dagokienarekin alderatuta hainbeste aldatzen, baina okupazio-tasak oso desberdinak dira. Horrek esan nahi du 25 urtetik beherako langileen artean lan-istripuen proportzioa handiagoa dela.

Okupazio-tasak eta lan-istripuak Euskadiko 16-34 urteko gazteen artean 2022an, adin-taldean arabera		
	Okupazio-tasa (%)*	Lan-istripuak (absolutuak)**
16-24 urte	24,7	2.140
25-29 urte	73,4	2.621
30-34 urte	81,5	3.092
*Okupazioari buruzko datuen iturria: EUSTAT		
**Lan-istripuei buruzko datuen iturria: OSALAN		

2022ko datuekin jarraituz, gazteen istripuen erdia baino gehiago zerbitzuen sektoreari lotutako enpleguetan erregistratu ziren (% 61,3, zehazki), baina, egia esan, sektore horretan lan egiten dute gazte gehienek (16 eta 34 urte bitarteko landunen % 78,1ek). Hala ere, industriaren eta eraikuntzaren sektoreetan, proportzioan, horietan lan egiten duten gazteen bolumenagatik legokiekeena baino istripu gehiago gertatu dira.

Okupazioaren eta lan-istripuen portzentajeak Euskadiko 16-34 urteko gazteen artean 2022an, sektore ekonomikoen arabera		
	Gazte okupatuak banaketa (%)*	Gazteek izandako lan-istripuen banaketa (%)**
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza	1,0	1,4
Eraikuntza	3,8	8,9
Industria	17,0	28,4
Zerbitzuak	78,1	61,3
Guztira	100	100
*Okupazioari buruzko datuen iturria: EUSTAT		
**Lan-istripuei buruzko datuen iturria: OSALAN		

Azkenik, 2022an gazteen artean gertatutako lan-istripuen % 99,5 istripu arinak ziren, baina 35 istripu larri eta 2 hilgarri gertatu ziren. Zoritxarrez, aztertutako urte guztietan istripu hilgarriren bat zenbatu da.

Osalanek, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Euskadiko lan-istripuei buruzko datuak ematen dizkio urtero Gazteen Euskal Behatokiari. Datu horiek Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean, online estatistiketan, kontsulta daitezke, zehazki "Lan-istripuak" atalean, "Lana eta egoera ekonomikoa" izeneko gaiari lotutako adierazleen artean.

Laneko segurtasuna Garapen Jasangarriko Helburuen 2030 Agendaren puntu garrantzitsu bat da, eta 8. helburuaren barruan, "Lan duina eta hazkunde ekonomikoa", jasota dago, zehazki 8.8. xedean: *Lan-eskubideak babestea eta langile guztientzako (langile migratzaileak barne) lan-ingurune seguru eta arriskurik gabea sustatzea, bereziki emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituzten pertsonentzat.*





**GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA**

Euskadiko 16-29 urteko gazteen langabezia-tasa 7,2 txikiagoa zen 2022an Espainiako gazteen artean baino

Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) hiru hilean behin egindako Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestaren (BJA) datuen arabera, Euskadiko gazteen langabezia-tasa % 15,0koa izan zen 2022an.


Langabezia-tasak adierazten du enplegurik ez duten, baina aktiboki bilatzen ari diren eta azken lau asteetan lana bilatzeko kudeaketaren bat egin duten pertsona aktiboen (hau da, lan egiteko prest daudenen) ehunekoa. Ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak, ezta lanik egin ezin duten pertsona ezgaituak ere.

2020an langabeziak gora egin ondoren, Covid19aren pandemiaren ondorioz, langabeziak behera egin zuen 2021ean eta 2022an, eta, 2023ko bigarren hiruhilekoko datuak ere baieztatzen duen bezala (% 12,3an dago), behera egiten jarraitzen du.

Hala ere, INEren (Estatistikako Institutu Nazionala) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, Espainiako gazteen langabezia-tasa % 22,2koa zen 2022ko bigarren hiruhilekoan, hau da, Euskadin erregistratutakoa baino ehuneko 7,2 puntu handiagoa.

Bi alderdi nabarmendu behar dira: Euskadi dela gazteen artean langabezia-tasarik txikiena duen Autonomia Erkidegoa, eta bai Euskadik bai Autonomia Erkidegoek langabeziaren beherakada izan dutela, 2020ko Covid19aren pandemiaren ondorioz jasandako gorakadaren ondoren.

16-29 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaeraren alderaketa Euskadin eta Espainian (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTAT eta INEren datuetatik abiatuta

Okupazio-tasari dagokionez, hau da, enplegua duten 16-29 urteko gazteen ehunekoa adin-talde bereko pertsona guztiekiko, 2020tik 2022ra bitartean Euskadin enplegua duten gazteen ehunekoa % 37,3tik % 42,3ra igo zela ikus dezakegu. Balio horrek Euskadi Espainiako batez bestekoaren gainetik jarriko luke (% 38,8), Kataluniarekin, Balearrekin eta Madrilgo Erkidegoarekin batera, gazteen artean okupazio-tasa handienak dituzten autonomia-erkidegoak baitira.

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 12,3ra jaitsi da 2023ko bigarren hiruhilekoan

Euskadiko gazteen langabezia-tasa ehuneko 2,2 puntu jaitsi da, 2023ko lehen hiruhilekotik bigarren hiruhilekora.


Langabezia-tasaren jaitsiera handiagoa izan da 16 eta 29 urte bitartekoen artean, biztanleria osoan baino, Euskadiko langabezia-tasa orokorra % 8,7tik % 7,4ra pasatu baita. Gainera, tasa orokorraren eta gazteriar dagokionaren arteko aldea murriztu da eta 2023ko bigarren hiruhilekoan ehuneko 4,9 puntukoa izan da.

Aurkeztutako datu hauek Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestaren emaitzak dira, 2023ko bigarren hiruhilekoari dagozkionak, hain zuzen ere. BJA Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitarteko gazteen datuak helarazten dizkio, azken honek gazteen egoera aztertu ahal izateko.

Langabezia-tasak zera adierazten du: enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren eta azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsona aktiboen ehunekoa. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

2020an langabezia-tasak gora egin zuen, Covid19aren pandemiak sortutako egoeraren ondorioz. Gero, 2021ean eta 2022an, behera egin zuen eta 2023an beheranzko joerarekin jarraitzen du, bigarren hiruhileko datuak adierazten duen bezala.


Euskadiko 16-29 urteko gazteen hiruhilekoko langabezia-tasaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta
(Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA)

2012tik, langabezia-tasak bigarren hiruhilekoetan izan duen bilakaerak erakusten du egungo tasa azken hamarkadako onena dela, bai eta pandemiaren aurreko urteetan lortutakoak hobetzen dituela ere.

Euskadiko 16-29 urteko gazteen langabezia-tasaren bilakaera 2012ko bigarren hiruhilekotik 2023ko bigarren hiruhilekora (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta
(Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA)

2023ko bigarren hiruhilekoan, emakume gazteen langabezia-tasa (% 11,5) gizon gazteena (% 12,9) baino txikiagoa da, eta gizonena baino jaitsiera handiagoa izan

du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, orduan % 15,3koa baitzen emakumeen artean eta % 13,8koa gizonen artean.

Emakume eta gizon gazteen langabezia-tasak 2019ko bigarren hiruhilekotik 2023ko bigarren hiruhilekora izan duen bilakaeraren azterketak erakusten du, berriro ere, emakume gazteen langabezia-tasak gizonena baino jaitsiera handiagoa izan duela, 2022ko bigarren hiruhilekoko datuen aldean.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta
(Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA)

Datu horiek zuzenean lotuta daude Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 8. helburuarekin, "Lan duina eta hazkunde ekonomikoa", eta, zehazkiago, 8.5 helmugarekin: *Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina lortzea emakume eta gizon guztientzat, baita gazteentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat ere, eta balio bereko lanagatik ordainsari berdina jasotzea.*



2022an, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 15,0ra jaitsi da


Okupazio-tasa % 42,3ra iritsi da, 2011tik baliorik altuena

Maiatzaren 1a dela eta, Gazteen Euskal Behatokiak zenbait datu eman nahi ditu 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio- eta langabezia-tasen eta biztanleria osoaren artean dauden aldeei buruz. Horretarako, EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuetan oinarritzen da, Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestan (BJA) oinarrituta.

Okupazio-tasak landunen ehunekoa adierazten du, hau da, lanean daudenena, adin-tarte bereko pertsona guztiekiko. 2022an, gazteen okupazio-tasa %42,3koa izan da Euskadin, eta 1,9 puntu igo da aurreko urtearen aldean.

Gazteen okupazio-tasa 16 urte eta gehiagoko biztanleen kopuruarekin alderatzen badugu, 2022ko aldea estutu egin dela ikus dezakegu, gazteen okupazio-tasak gora egin duelako.

16 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta 16 urte eta gehiagoko biztanleen okupazio-tasen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia egina, EUSTATen (BJA) datuetan oinarrituta

Okupazioa handiagoa da gizon gazteen artean (%45,3) emakume gazteen artean baino (% 39,1).

Langabezia-tasak zera adierazten du: enplegurik ez duten baina lanerako prest dauden eta lan bila ari diren pertsona aktiboen (hau da, lan egiteko prest dauden) ehunekoa.

2022an, 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen langabezia-tasa 2010etik izandako baliorik txikienera jaitsi da.

16 urte eta gehiagoko biztanleriaren langabezia-tasarekin alderatuta, gazteen langabezia-tasa biztanleria osoarena baino handiagoa da beti. Alderik handiena 2013an erregistratu zen, eta 2020ko gorakadaren ondoren, 2022ko 6,5 puntura jaitsi da.

Krisi ekonomikoaren garaian, alde hori areagotu egiten da, eta gazteak dira lana gehien galtzen dutenak. Hala, 2013an eta 2020an, 16-29 urteko gazteen langabeziak bikoiztu egin zuen Euskadiko biztanleria osoarena.

16 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta 16 urte eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia egina, EUSTATen (BJA) datuetan oinarrituta

Euskadiko gazteen enpleguari buruzko datuak Gazteen Euskal Behatokiaren [estatistiketan](#) kontsulta daitezke, **Enpleguaren eta Egoera Ekonomikoaren atalean** hain zuzen ere.

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 14,5koa da 2023ko lehen hiruhilekoan

Langabezia-tasak 2022ko lehen hiruhilekoan izan zuen mailan (% 14,6) jarraitzen du, eta 2019, 2020 eta 2021 urteetan erregistratutako zifren azpitik dago. 16-29 urteko gazteen langabezia-tasa ia sei puntu handiagoa da Euskadiko biztanleria osoarena baino (% 8,7).


Gazteen langabezia-tasa -1,4 puntu jaitsi da aurreko hiruhilekoaren aldean, baina biztanleria osoan +0,2 puntu igo da.

Aurkeztutako datuak Biztanleriaren Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestaren emaitzak dira, 2023ko lehen hiruhilekoari dagozkionak, hain zuzen ere. BJA Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitarteko gazteen datuak helarazten dizkio, azken honek gazteen egoera aztertu ahal izateko.

Langabezia-tasak zera adierazten du: enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren eta azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsona aktiboen ehunekoa. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.


Covid19aren pandemiak sortutako egoeraren ondoriozko gorakadatik errekuperatzeaz gain, langabezia-tasa 2019an erregistratutako zifren azpitik dago.

Euskadiko 16-29 urteko gazteen hiruhilekoko langabezia-tasaren
bilakaera (%)



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta
(Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA)*

2023ko lehen hiruhilekoan, emakumeen langabezia-tasa gizon gazteena baino handixeagoa da (% 15,3 eta % 13,8, hurrenez hurren). 2021ean izan ezik, emakume gazteek gizonak baino langabezia-tasa handixeagoak izan dituzte, urteko lehen hiruhilekoetan behintzat.



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta
(Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA)*

Gazteen jarduera, okupazio eta langabeziari buruzko datu gehiago kontsulta ditzakezu [Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistiketan](#).

Parte-hartzea

Participación




“Bakea, Justizia eta Institutuzio sendoak” Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren 16garren helburua da

Euskadiko gazteen heren bat baino gehixeago (% 37) interesatuta zegoen maiatzaren 28an izan ziren udaletarako eta batzar nagusietarako hauteskundeetan

Maiatzaren 2a eta 5a artean, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 18 eta 29 urte bitarteko 395 gazteri galdetu zien ea zenbateko interesa zuten maiatzaren 28an izango ziren udal eta batzar nagusietarako hauteskundeetan.

Gazteen % 14k interes handia zuela erantzun zuen eta beste % 23k nahikoa interes zuela; guztira % 37k adierazi zuen maiatzaren 28an izango ziren hauteskundeetan interesatuta zegoela.


Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteek maiatzaren 28ko hauteskundeetan izan duten interes maila (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratutako datuak oinarri hartuta (80. Euskal Soziometroa)

Gazteak dira 2023ko udal eta batzar nagusietarako hauteskundeekiko interesik baxuena adierazi duen adin-taldea. Adinean gora egin ahala handitzen da interesa izan dutela diotenen kopurua, baina, hala ere, 18 urtetik gorako biztanleria osoa kontuan hartuta, batez beste, erdiak baino gutxiagok dio interesa izan duela hauteskunde hauetan (% 45ek, hain zuzen ere).

Maiatzaren 28ko hauteskundeetan izandako interes maila, adin-talde handien arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratutako datuak oinarri hartuta (80. Euskal Soziometroa)